



Musika eta euskara elkarrekin solasean

Kantu Jirak berezkoa du musika eta euskara uztartzea. Horretan datza beraren funtsa jaio zenetik. Are gehiago, doinuak eta hizkuntza lotzeaz gain, edo horregatik hain zuzen, plazer bikoitza eskaintzen die kantukideei: melodien zirrarez eta euskararen xarmaz gozatzea. Zer atsegina den elkarrekin abestea, horretarako bakoitzak dituen dohain eta mugei erreparatu gabe! Herrikoia da Kantu Jira. Era berean, zer nolako poza sorrarazten duen euskaldunongan euskaraz kantatzeak, hizkuntzaren ezagutzari dagokionez oraindik hutsuneak izanda ere! Euskaraz kantatzea... euskara maitatzea, euskaraz aritzea da kontua.

Kantu Jirak, beraz, euskaraldiaren helburuarekin guztiz bat egiten du. Naturaltasun osoz, kantukideen aho-belarrietan dantzan dago euskara, eta giro horretan erakarpen efektua gertatzen da euskaraz oraindik ez dakiten batzuegan ere: abestia zertaz ari den, hitz horiek zer adierazten duten jakin nahia. Hau da, Kantu Jirak, hizkuntzaren transmisioan katebegi sendoa izan nahi duen horrek, euskarari bideak zabaltzen dizkio, partaideen artean euskaraz mintzatzeko joera indartzen edota sortzen lagundu nahi du. Lehengo eta oraingo euskal abestiak bizirik mantentzen saiatzen da, noski, baina euskal kantuez kaleak blaitzearekin batera, edozein esparrutan euskaraz aritzeko gogo eta poza piztu nahi ditu, Etxepareren desira hura (*Linguae Vasconum Primitiae*, 1545) gaur egun ere egia bihur dadin: “Euskara, jalgi hadi plazara / ... / Euskara, habil mundu guzira”.

Karlos Serrano, Donostiako Kantu Jiraren izenean 2018-08-31